
 WEBQUEST

Arloa: OROKORRA

Gaia:

Maila: LH 3. ZIKLOA 2. MAILA

Saioak: 5/6 Webquest bakoitzerako

Proposamenaren testuingurua:

Hezkuntzaren helburu garrantzitsuenetario bat ikasle autonomoak egitea izan behar da. Informazioa bilatu, sailkatu, kudeatu eta aurkeztea ekintza oinarrizkoa izan behar da irakaslearen programazioan. Gaur egun gainera, teknologia berriek aukera ezin hobea ematen digute metodología hau erabiltzeko gelan. WebQuesten bidez, ikasleek informazio kudeatuz gain, soporte digital batean aurkeztu behar dute eta beste ikasleen aurrean azaldu, bere hezkuntzaren beste aspektu garrantzitsua garatuz.

Unitate honetan WebQuest desberdin batzuk landuko dira arlo batzuetan aplikatzeko, beti taldeko lana eginez eta egindako lana beste ikasleen aurrean aurkeztuz.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako Gaitasuna	Prozesu osoan
Ikasten ikasteko gaitasuna	Prozesu osoan.
Matematikarako gaitasuna	
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Prozesu osoan
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Prozesu osoan
Gizarterako eta herritartasunerako Gaitasuna	Prozesu osoan
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Prozesu osoan
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako Gaitasuna	Prozesu osoan

Helburu didaktikoak:

WebQuest bakoitzeko helburu berariazkoz gain, hauexek dira orokorrean lortu nahi diren helburuak.

1. Ikasleengan internetik nabigatzeko gaitasuna garatzea.
2. Iturri desberdinetako informazioa jaso eta aukeratu eta sailkatzen ikastea.
3. Pentsamendu kritikoa garatzea.
4. Ikasketa kooperatiboa garatzea.
5. Informazioa aktiboki eraldatu.
6. Ikaslearen sormena garatzea.
7. Talde lana egiten denean iritzia ematea eta informazioa bilatzeko edo laguntza eskatzeko egin behar diren pausoak ematen jakitea.
8. Aplikazio informatiko errazak erabiltzerakoan autonomia izatea.
9. Besteei ideiak eta kontzeptuak transmititzeko gai izatea.

Edukiak:

- Datuen bilaketa.
- Datuak jaso eta sailkatu.
- Informazioa soporte digitalean aurkeztu.
- Informazioa besteei azaldu.
- Euskal Herriko geografia.
- Herri kirolak.
- Lokomozio-aparatua.
- Giza ugalketa.
- Nerbio-sistema.
- Eskola-jazarpena.
- Kirola eta osasuna.

Jardueren sekuentziak:

- a) Planifikazioa: WebQuest bakoitzaren egituran.
- b) Burutzea: Ikasleek lana egitean.
- c) Aplikazioa: Aurkezpena egitean.

Ebaluazioa:

- Informazio ateratzen du bisitatutako web orrietatik eta beste errekurtsoetatik.
- Taldeko lanean asko hartzen du esku.
- Lan egiten du eta ekintzak oso ongi burutzen ditu.
- Lanaren edukiak aurkezten ditu.
- Aurkezpen baten arauak jarraitzen ditu.
- Azalpen ona, argia eta ordenatuta egiten du.
- Tresna desberdinak erabiltzen ditu.
- Taldekoei eta irakasleari galdetzen die.
- Testo bat irakurtzen du ideia inportanteenak ulertuz.
- Informatika aplikazio errezekin autonomia da.
- Taldean iritzia ematen du.
- Ekintzetan parte aktiboa hartzen du besteak errespetatzen.
- Ikasi duena baloratzen du.

Tresnak:

- ✓ Eguneroko behaketa.
- ✓ Burututako lana.
- ✓ Egindako aurkezpena.
- ✓ Ebaluazioa.